


EZKER-ESKUIN: KONZEPTU SOIL BEZALA



alegia. Haatik ere, ezin ikusi dut, ebidentzia hori hain irmoki zerk finkatzen duen.

Bereztea komeni litzateke, noski. Galdera hori —ebidentziaren itxura batez baliatuz— arbulatzea, problema mordo bihurri bat ihes egiteko modu elegante bat izan bait liteke, bestela.

1. JAKITEKO GALDETU

Azterkari kritikoak galdera hori egin dezake, gizarte batetan zer dagoen eta egoera konkretua nola dagoen, nola juzka daitekeen, ikusteko soil-soilik. Zergatik ez? Edozertarako dela ere, zer dagoen jakinez, hasi behar izaten da.

2. GALDERA POLITIKOA ETA GALDERA IDEOLOGIKOA

Edo-ta, egin liteke maleziar ere, ukatuz bezala galdetuz. Dударik gabe, eskuindarrek ia beti halaxe egiten dizute. Eta galdera hori egiten duena, eskuindarra dela, susmo izatea, ez da guziz itxuragabekoa. Gehienetan halaxe izaten bait da: eskuindarraren ezezko politikoa, galdera forman diximulatuta. "Ba al dago, ba, eskuinik eta ezkerrik?", galdetzen du, esanaz bezala: "Tira, motel, ipuin horiek aspaldiko azak dituki..." Baina hor, galdetu, ez da ezer galdetzen. Galdetzeko itxura egiten da bakarrik.

Eskuinak hori egitea bidezko da: berezketari (ezker/eskuin) ez bait da politikoa bakarrik, espada ideologikoa ere bai. Eta eskuina, konzeptuaren definizioz berez, egiaaren pluralismo hori onar ez dezakeen plano ideologiko batetan aurkitzen da. Horregatik, eskuinak ez du onartu nahi izaten, eskuin/ezkerren banakuntza. Eskuinak, izan ere, egia iri segitzen dio (bere ustez!), eta egia ez du eskuinik eta ezkerrik (bere ustez hori ere!); egia bat da eta bat bakarra, bakarra eta bakuna (beti eskuinaren ustez). Eskuinak, ezker/eskuinik onartzen ez duen bezalaxe, partidurik eta pluralismorik ere ez du onartuko. Gizarte uniforme besterik ez. Ezkerra bada-goela ikusten badu, ezin ezkeraren esistentziarik ukatuko du. Baina zorakeria hutsa irudituko zaio, eta ezkeraren arrazoizotasuna ukatuko du: zentzu horitan behintzat ez du ezkerrik ametituko.

Beraz, eskuinak bikoiztasun hori ukatzea, ukazio politikoa da batik-bat, baina batez ere postura ideologikoa ondotz da. Ezkerrek, minorian dagoen artean behintzat, indar guzikien baiezatan du ezker/eskuin bikoiztasuna: baitespen politikoa. Baina historiak behin baino gehiagotan ikusi ditu ezkerrek eskuin bihurtzen, eta horrek ezkeraren barnean izkatzen den "eskuin-sustrai" azterkatzera behar-tzen gaitu.

PENTSASERA TOTALISTA

Eskuindarrek ez dute ezker/eskuin bikoiztasunik onartzen, eta hori (hortarako kasu bakoitzean izan ditzaketen interes konkretuez gainera) bikoiztasunok onar ezin ditzakeen perspektiba intelektuala, ideolo-

gikoa, edukitzeagatik. Pluralismorik ezin onartzea-gatik.

Eskuinaren antzera, totalitatearen osoki atzeman nahi eta atzeman ahal uste duenak, izan ere, eta berdin enpinu guziarekin hortantxe dabilenak, ezin besterik gabe onartuko dute, perspektiba parzial hutsarekin dabilzanik, aldeaz aurretik. Bestela, atzeman lezaketen guzia totalitate parzial bat dela aitortu beharko bait lukete. Horregatik.

—Hegel batek, esaterako, totalidadearen bere teoriari nahitaez objektibotzat eduki behar zituen. Beraz, posiblearen neurrian, osotzat ere bai eta baita egiazko bakartzat ere.

—Berdin marxismo sobietar klasikoa (ik. Kolkowski liburuan, or. 40/43, une berean alderdikor eta objektibo izan nahiak sortzen dizkion problema batzuk): bere egia, egia objektibo bakar eta osotzat daduka, eta egiaaren jabeen artean ez du eskuin/ezkerrik onartzen.

—Faxistek ere ezker/eskuin alternatibaren superazioztat eduki dituzte beti beren teoriari. Gaur ere bai.

—Eta, azken finean, totalidadearen zale guzientzat beti da, beharbada ezinezkoa ez denaen ere bai guziz bitxia, eskuindar edo ezkeriar agertu nahi izatea. Totalidadeak, egiazkoa bada, ezkerren eta eskulnen (hots, zati eta alderdi guzien) gainetik egon beharra bait daduka. Totalitatea hain zuzen sintesi, alderdi nahia atal guzien batasun, denez gero, ezin horrelako partiketariki permiti lezake. Funtsean horregatik ukatu ohi du eskuindarrek ezkerren esistentzia (puntu honetan behintzat ezkeriar aso baino konsekuentean agertuz): errealidade osoaren ikusgune objektibotzat dadukalako berea, eta gizartearen premia guzien ordezkari zate bere burua. Bere burua premia objektibo guzian (totalidadearen) ordeko egiten duen ezkerrekin ere —"ezker" stalinistarekin— gauza bera gertatzen da.

Hein honetan guziz logikoa da, orduan, Ortega y Gassetek gertaera horri formulazio garbia eman bazion: "Ser de la izquierda es, como ser de la derecha, una de las infinitas maneras que el hombre puede elegir para ser un imbécil: ambas, en efecto, son formas de la hemiplejia moral".

Horrek asko txokatzen du, baina halaxe da: perspektiba totalista hartuz gero. "Ezkerreko" eta "eskuineko" radikalismoak, totalismoak, elkarrekin bateratzen diren zera da hori. Horregatik da, agian, batzuek izugarri ezkeriartzat daduzkaten batzuk, beste batzuei eskuindar hutsak iruditzen bazaizkie. Urrutirago gabe, geure artean egunotanxe ikus daitekeenez. Hala, esaterako, Jon Sabandokoaren pasarte honetan (ZA, zenb. 522): "Larresorok eta beste askok, ganorabako 'ireki' horiei 'ultraezkeriarrak' deitzen deutesce. Ez jat oso zehatz iruditzen, ze ez dira ezkeriarrak, eskuindarrek baizik".

Honek, oharren batzu merezi ditu.

JOXE AZURMENDI

Ezker eta eskuin konzeptuak, jokabide batzuen edo zenbait posturaren adierazpenerako baino lehenago, konzeptu espazial soilak izan dira. Ezkeriarrak, lehen-lehenik, ezker aldean dagoena edo ezkerretik dabilena da. Eskuindarra, eskuin (eskubi) aldekoa besterik ez.

Esanahi espazial simple horrexetatik sortua da eskuin eta ezker konzeptuen esanahi politikoa. Frantziako ohitura parlamentario batetatik bait dator hau: alderdi politikoez parlamentuan (deputatu Ganbaran) zuten lekutik. Lehendakariaren alkitik edo hizlariaren kulpitotik begiratuta, ezker aldean oposizio liberalak esertzen ziren; kontserbadoreak eskuin aldean. Arestian, kontserbadoreak zeuden gobernarri. Gerora, mundu guzian, ohitura bihurtu da partiketa hori: "ezkeriarrak" parlamentu aretoko ezker aldean tokatzen zale. Ohiturak badu izan ere, arrazoimen kritikoari buria egiten dion bere indar magikoa. ("Magiko" hitza erabiltzeak ere, dagoeneko bere magia baduen bezalaxe).

Parlamentuko alki banakuntza hori dela-ta, liberalak ezkeriarrak eta kontserbadoreak eskuindar deitze-ko ohitura zabaldu zen. Geroago, arrunki oposizioari esaten zitzaion ezkerria (oposizioa esertzen bait zen ezkerrean): norbait ezkeriarrak zela esatea, oposizio-koa zela esatea bezala zen. Eta oposizioan liberalak zeuden.

Honela sortu ziren konzeptuak, sortu. Baina kontu horiek aspaldikoak dira: harez gero bai ideiak eta bai egoerak asko aldatu dira.

GAUR BA AL DA EZKER-ESKUIK?

Egiten dena bait da (ia beti eskuindarrek egiten badute ere), guk ere egin beharra dugu galdera hori: ba al du zentzurik, oraindik eskuinaz eta ezkerreaz hitzegiten segitzeak? Bai, noski; baina zein zentzutan, eta zein kondizioetan?

Txillardegiri ez zaio batere gustatzen galdera hori, nonbait. Honela dio, behintzat: "Eman bizaio Alainei, nire orde, erantzunik egokiena: Ezker eta eskuindar alderdien arteko etendurek, edo ezker-tar eta eskuindar gizonen artekoek, oraindik ere zerk ote dutenentz galdetzen didatenean, lehenik dator-kidan ideia hauxe izaten da: horrelako galdera bat egiten duena ez dala, eskerki, ezker-tar". Zuzen oroitzen banait, Rikardo Arregik ere berdin-berdin erantzuten zuen.

Litekeena da, Alainei galdera horrekin joaten zitzaizkionak, denak eskuindarrek izatea. Orduan, itxurazkoa dirudi Alainei susmoak. Halare, bildur naiz, oraingoan eskuindarregana ez ote naizen irristatuko... Baina, zer arraio: ateraldi zorrotz horiek oso dialektikoak-edo izango dira, baina ni ez naute gehiagi asetzen. Agian ez dira —esperentziari begira— guziz bidegabekoak, baina, oro har, bluff bat iruditzen zaizkit. Eta ezkeriarrak gaur arte galdera hori egin ez badute, ez zait horixe ezkerrean aldeko ezer iruditzen; eta bai, ezkerrek, maiz gustora, egin izan dituen simplifikazio haundietako bat. Azkenean, "eskuintasuna ta ezkertasuna zertan da, izaten aztertu" nahi duena —eta bere burua edo beste edozein eskuindar-tzat nahiz ezkeriartzat har-tzen dituen nornahik, egin behar izaten du hori nolabait— nola edo hala galdera horrekin abiatu bait da, hasera-haseratik eta a priori baletz erantzunez egiten badu ere: ezkerrek eta eskuinak badirela,



IRIZAR

Autoetxegintzan berezia

ORMAIZTEGIN

Urrutizkiñak: 891546 - 891771